

IRUZURRA PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO ETA ZUZENTZEKO PLANA

AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA
 - 2.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.
 - 3.- PLANEAN MAIZ ERABILTZEN DIREN KONTZEPTUEN DEFINIZIOAK
 - 4.- IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLAN HONEN HELBURUA
 - 5.- KONTZEPTUAK
 - 6.- ARRISKUAREN EBALUAZIOA. AUTOEBALUAZIORAKO GALDETEGIA
 - 7.- PLANAREN EREMU OBJEKTIBOA
 - 8.- PLANAREN EREMU SUBJEKTIBOA
 - 9.- PLANAREN ORGANO ARDURADUNAK
 - 10.- INTERES-GATAZKEI AURRE EGITEKO NEURRIAK
 - 11.- IRUZURRA ETA USTELKERIA PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO ETA ZUZENTZEKO NEURRIAK: IRUZURRAREN AURKAKO ZIKLOA
 - 12.- PLANAREN JARRAIPENA ETA ALDIZKAKO KONTROLA
- I. ERANSKINA. Astigarragako Udaleko zinegotzien kode etikoa, 2016ko maiatzaren 21eko osoko bilkuran onartua.
- II. ERANSKINA. Autoebaluaziorako galdetegia.
- III. ERANSKINA. Astigarragako Udaleko zinegotzien adierazpena iruzurraren aurkako jarrera irmoari eta iruzurraren aurrean zero tolerantziari buruz.
- IV. ERANSKINA. Funtzio publikoan edo zinegotzi eta/edo alkate karguetan sartzen den pertsona ororen zinpeko aitortpena.
- V. ERANSKINA: Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA).

1. SARRERA

Iruzurra eta ustelkeria fenomeno sozial, politiko eta ekonomiko konplexua da, eta herrialde guztiei eragiten die. Ustelkeriak erakunde demokratikoak ahultzen ditu, garapen ekonomikoaren erritmoa moteltzen du eta eragina du gobernuaren ezegonkortasunean.

Astigarragako Udalak zero tolerantziako konpromisoa hartzen du iruzurtzat, ustelkeriatzat edo interes-gatazkatzat har daitezkeen jokabideen aurrean, bai alderdi publikoari bai alderdi pribatuari dagokienez, eta bere gain hartzen du era guztietako iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko konpromisoa, estortsioa eta eroskeria barne, bai eta horretarako politika zehatzak garatzeko konpromisoa ere.

Udalak bere gain hartzen du bere jarduera eremu guztietan ustelkeriaren eta iruzurraren aurkako borrokak dakarren erronkan aktiboki parte hartzeko erantzukizuna, eta iruzurrari eta ustelkeriari aurre egiteko konpromisoa hartzen du halaber, Udala osatzen duten pertsona guztien jokabidea gidatu behar duten arauak, prozedurak eta printzipioak ezarriz. Hori dela eta, Udalak Iruzurra Prebenitzeko, Detektatzeko eta Zuzentzeko Plan hau egin du (aurrerantzean Iruzurraren Aurkako Neurrien Plana edo Plana).

2.- APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua eta, haren arabera, irailaren 29ko HPF/1030/2021 Aginduak Espainiari ezartzen dizkioten betebeharrak betetzeko, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM-MRR) funtsen onuradun gisa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP-PRTR) jasotako neurriak betetzen parte hartzen duten erakunde guztiek (erabakitzaileek zein betearazleek) izan beharko dute «Iruzurraren Aurkako Plana». Plan horren, eta, beraz, zehazki plan honen helburua da bermatzea funtsak erabiltzeko orduan bete egingo direla kasu bakoitzean dagokion jardueraren eremuan aplikatu beharreko arauak, eta bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak behar bezala prebenituko, detektatuko eta zuzenduko direla ziurtatzea.

Iruzurraren Aurkako Plan honi aplikatu beharreko araudien artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

1.- Europako araudia

- 2021/241 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena, eta hura garatzen duten gainerako arauak.
- 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena,



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa (EBren Finantza Erregelamendua). EBAO, 2018ko uztailaren 30ekoa, 193. zk.

- 2017/1371 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko uztailaren 5ekoa, Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurka Zuzenbide Penalaren bidez borrokatzeari buruzkoa (PIF Zuzentaraua). EBAO, 2017ko uztailaren 28koa, 198. zk.

2.- Estatuko araudia

- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko premiazko neurriak onartzen dituena aipatutako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko.
- Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duena.
- Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaien neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren jarraipena egiteko eta aurrekontua eta kontabilitatea betearazteko.
- Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendarako Ministerioaren TMA/957/2021 Agindua, irailaren 7koa, Espainiako Hiri Agendaren tokiko ekintza-planen proiektu pilotuak egiteko laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta norgehiagoka-prozeduraren bidez dirulaguntzak lortzeko eskaerak aurkezteko deialdia onartzen dituena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa (SPKL) (64. art.).
- 2021eko abenduaren 23ko instrukzioa, Estatuko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearena, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik etorritako funtsekin finantzatuak diren kontratuen espedienteetan eta baldintza-agirietan sartu beharreko alderdiei buruzkoa.

3.-PLANEAN MAIZ ERABILIKO DIREN KONZEPTEUEN DEFINIZIOAK

Hona hemen dokumentu honetan maiz erabiliko diren kontzeptuen definizioak:

- SEM: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa.
- SSEP: Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana.
- Iruzurraren aurkako neurrien plana: dokumentu honetan jasotako xedapenen multzoa, aurrerantzean «Plana» ere esango zaiona.
- Astigarragako Udaleko langileak: karrerako funtzionarioak edo bitarteko funtzionarioak, lan-kontratua duten langileak, Udaleko behin-behineko langileak, bai eta zinegotziak ere.
- SNCA: Iruzurraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionala.
- Iruzur-arriskua: Plan honen 3. atalean adierazi diren iruzur-jokabideekin lotutako arau-hauste penala ekar dezaketen jokabideak izateko arriskua.
- Iruzur-arriskuaren ebaluazioa: Iruzur-arriskuen zerikusia duten arriskuak eta haiek arintzeko

neurriak identifikatzen eta balioesten dituen dokumentua, gertatzeko probabilitatea eta inpaktua kontuan hartuta.

4.- IRUZURRAREN AURKAKO NEURRIEN PLAN HONEN HELBURUA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22. artikulua Espainiari ezartzen dizkion betebeharrak betetzeko, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM-MRR) funtsen onuradun gisa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP-PRTR) jasotako neurriak betetzen parte hartzen duten erakunde guztiek (erabakitzailiek zein betearazleek) izan beharko dute «*Iruzuraren aurkako neurrien plana*». Plan horrek bermatuko eta adieraziko du funtsak erabiltzeko orduan bete egingo direla kasu bakoitzean dagokion jardueraren eremuan aplikatu beharreko arauak, bereziki, iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeari, detektatzeari eta zuzentzeari dagokienez.

Horren harira, Astigarragako Udalak konpromisoa hartzen du kalitate juridiko, etiko eta moral handia izateko, eta zuzentasunaren, inpartzialtasunaren eta zintzotasunaren printzipioak betetzeko. Bere asmoa da iruzurraren, ustelkeriaren, bidegabeko erabiltzearen, interes-gatazken eta dirua zurtzearen aurka dagoela erakustea bere eginkizunak gauzatzean.

Konpromiso hori ez da berria; izan ere, 2016ko maiatzaren 21eko osoko bilkuran, Astigarragako Udalak aho batez onartu zuen Astigarragako Udaleko zinegotzien kode etikoa, eta Iruzuraren aurkako neurrien Plan honetan sartu da (*I. eranskina*). Era berean, funtzionario eta lan-kontratadun langile guztiek ere konpromiso hori hartzea espero da.

Zehazki, eroskeriaren aurka borroka egiteko konpromisoa hartu du Udalak. Halatan, debekatuta dago Udaleko langileek, lorpen profesionalak erdiestearen ondorioz, edozein eratako opariak, sariak edo mesedeak eskaintzea hirugarren pertsonari edo jasotzea hirugarren pertsonengandik, bai eta merkatuko erabileretatik kanpo dauden opariak edo mesedeak, edo, haien balioa, ezaugarriak edo inguruabarrak direla-eta, harreman komertzialen, administratiboen edo profesionalen garapena alda dezaketenak ere.

Garrantzitsua da behar bezala hautatzea Udalaren izenean dihardutenak, eta jokabide horiek izan ditzaketenak zaintzapean edukitzea. Horrenbestez, iruzurraren aurkako neurrien plan honen helburua da iruzur-jarduera orotarako disuasio-efektua izango duen kultura sustatzea, iruzurra prebenitu eta detektatu ahal izateko, eta iruzurra eta harekin zerikusia duten delituak ikertzeko prozedurak garatzea, kasu horiei behar bezala eta behar den unean ekingo zaiela bermatzeko.

Astigarragako Udalak iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko ezarri beharreko mekanismoak jaso dira dokumentu honetan, modu proportzionatuan, berriazko ezaugarriak eta iruzur-arriskuen ebaluazioa kontuan hartuta, eta betiere Europar

Batasunaren interesen babes egokia bermatzeko beharra aintzat hartuta. Mekanismo horrek, gainera, “iruzurraren aurkako zikloa” deritzonaren funtsezko lau elementuen (prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena) inguruan egituratu ditu iruzurraren aurkako neurriak.

Zehaztutako neurriak Astigarragako Udaleko langile guztiei aplikatuko zaizkie, eta adierazi den bezala, barne hartuko dira karrerako eta bitarteko funtzionarioak, lan-kontratua duten langileak eta behin-behineko langileak. Zinegotzietan ere aplikatuko zaizkie neurri horiek.

Astigarragako Udalak konpromiso irmoa eta erabatekoa du iruzur-jokabideak, ustelkeria-jokabideak eta interes-gatazkak saihesteko eta inolaz ere ez onartzeko, bai eta bere jardura-eremuan kudeatutako funtsak aplikatu beharreko arauen arabera erabili direla bermatzeko ere, betiere Batasunaren finantza-interesak babestuz SEMen esparruan. Apatutako jokabideak saihesteko ezarritako bitartekoak gorabehera, jokabide horiek izaten badira, beharrezko neurriak hartuko dira, agintari eskudunekin erabateko elkarlanean, errudunak dituen erantzukizunak argi daitezen.

Aipatutako helburu orokor hirukoitz hori betetzeko, iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazken arriskua minimizatzeko eta haien kontrola indartzeko, honako hauek izango ditu Astigarragako Udalak:

- Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEa)
- Iruzurraren aurkako Batzordea, egon daitezkeen arriskuen jarraipena egiteko, geroago zehaztuko den bezala.
- Iruzurra gertatuz gero, kontrolatzeko eta jarduteko prozedura.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzten duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak xedatutakoaren arabera, Iruzurraren aurkako Plan honek kontuan hartu ditu 6. artikuluan 5. paragrafoan jasotako gutxieneko eskakizunak:

1. Astigarragako Udalaren osoko bilkurak laurogeita hamar egun baino gutxiagoko epean onartu du Plana, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik etorritako funtsen erabileran parte hartuko zuela jakin zuenetik.
2. Modu proportzionatuan eta «iruzurraren aurkako zikloa» deitutakoaren funtsezko lau elementuen (prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena) inguruan egituratu ditu iruzurraren aurkako neurriak.
3. Iruzur egiteko arriskuaren, eraginaren eta probabilitatearen ebaluazioa egitea aurreikusi du esleitu zaizkion funtsen erabileraren funtsezko prozesuetan, bai eta urtero berrikustea ere, eta, betiere, edozein iruzur-kasu antzeman bada edo aukeratutako prozeduretan edo langileengan aldaketa nabarmenak badaude.
4. Prebentzio-neurri egokiak eta proportzionatuak definitu ditu, egoera zehaztutara egokituak,

iruzurraren hondar-arriskua maila onargarri batera murrizteko.

5. Alerta-seinaleetara egokitutako detekzio-neurriak aurreikusi ditu, eta haiek eraginkortasunez aplikatzeko prozedura zehaztu du.

6. Iruzur susmoak daudenerako neurri zuzentzaile egokiak definitu ditu, susmo horiek jakinarazteko mekanismo argiekin.

7. Prozesu egokiak ezarri ditu iruzur-susmoa dagoen kasuetan jarraipena egiteko.

8. Zehazki, interes-gatazken egoerak prebenitzeko eta zuzentzeko prozedurak definitu ditu, Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren 61. artikuluan 1. eta 2. paragrafoetan xedatutakoaren arabera (2018/1046, 2018ko uztailaren 18koa, Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoa). Bereziki, honako hauek ditu:

- a) Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA), SEEP betearazteko prozeduretan parte hartzen dutenek sinatua (V. eranskina).
- b) Egon daitekeen edozein interes-gatazka jakinarazteko konpromisoa, eta,
- c) Organo eskudunak kasu bakoitzean dagokion erabakia hartzeko konpromisoa.

Prebentzio- eta detekzio-neurriak zehazteko orduan, Udal honek kontuan hartu ditu bere ezaugarri espezifikoak, betiere Batasunaren interesen babes egokia bermatuz, eta Europako eta Espainiako araudian ezarritakoari eta, Europar Batasunaren finantza-interesak babesteari dagokionez, haren erakundeek egin dituzten edo egin ditzaketan adierazpenei hertsiki jarraituz.

5.- KONTZEPTUAK

Bestalde, 2017/1371 (EB) Zuzentarauan (PIF Zuzentaraua) -Batasunaren finantza-interesei eragiten dien iruzurraren aurka Zuzenbide Penalaren bidez borrokatzeari buruzkoa-, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduan (EBren Finantza Erregelamendua) -Batasunaren aurrekontu orokorrari aplika dakizkiokeen finantza-arauei buruzkoa- jasotako iruzurraren, ustelkeriaren eta interes-gatazkaren definizioak, HPF/1030/2021 Aginduaren III.C eranskinean bilduta daudenak, kontuan hartuta, halakotzat hartu dira honako definizio hauek:

5.1. INTERES-GATAZKA

a) Kontzeptua.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren 61. artikulua, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoak (Finantza Erregelamendua), xedaturikoaren arabera, interes-gatazka egongo da *“baldin eta finantza-eragileek eta aurrekontua zuzenean, zeharka edo modu partekatuan gauzatzen nahiz kudeatzen parte hartzen duten gainerako pertsonak, prestatzeko ekintzak, auditoria edo kontrola barne, beren eginkizunen gauzatze inpartziala eta objektiboa arriskuan ikusten badute familiari, harreman afektiboari, kidesun politiko edo nazionalari, interes ekonomikoari edo interes pertsonalari zuzenean zein zeharka lotutako arazoien ondorioz”*.

b) Interes-gatazketan inplikaturik egon daitezkeen eragileak:

- Esleipenak, kudeaketak, kontrol-lanak eta ordainketak egiteko ardura duten udaleko langileak, bai eta eginkizun horietako batzuk eskuordetzen zaizkien gainerako eragileak ere.
- Onuradun pribatuak, bazkideak, kontratistak eta azpikontratistak, baldin eta haien jarduerak SEMeko funtsekin finantzatzen badira eta beren interesen alde egin badezakete, baina EBren finantza interesen aurka, interes-gatazka baten esparruan.

c) Interes-gatazka izan daitezkeen sailkapena:

Honako hauek hartu dira kontuan:

- Ageriko interes-gatazka: eragile baten interes pribatuek bere eginkizunak edo betebeharrak modu objektiboan betetzea arriskuan jar dezaketenean gertatzen da, baina, azkenean, lotura identifikagarri eta indibidualik ez dagoenean pertsonaren jokabidearen, portaeraren edo harremanen alderdi zehatzekin (edo alderdi horietan eraginik ez duenean).
- Interes gatazka potentziala: inplikaturik egon daitezkeen eragileak dituen interes pribatuek, etorkizunean erantzukizun ofizial jakin batzuk bere gain hartu behar baditu, interes-gatazka eragin dezaketenean sortzen da.
- Benetako interes gatazka: Udaleko langileen betebeharrak publikoaren eta interes pribatuen artean gatazka dagoenean, edo langile horiek beren betebeharrak eta erantzukizun ofizialetan bidegabe eragin dezaketen interes pertsonalak dituztenean.

5.2. IRUZURRA

Honako hauek joko dira Batasunaren interesari eragiten dien iruzurtzat:

A) Kontratu publikoekin zerikusirik ez duten gastuen arloan, honako hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatu gabeak erabiltzea edo aurkeztea,



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

baldin eta horien ondorioa Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak edo Batasunaren izenean administratutako aurrekontuetako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea edo funtsik gabe atxikitzea bada.

- Informazio jakin bat jakinarazteko berariazko obligazioa ez betetzea, baldin eta ondorio berbera badu, edo
- Funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako bidegabe erabiltzea.

b) Kontratu publikoekin zerikusia duten gastuen arloan, egilearentzat edo beste pertsona batentzat legez kontrako irabazi-asmoz egiten direnean bederen, eta Batasunaren finantza-interesei galera eragiten dienean, honako hauei buruzko edozein ekintza edo ez-egite:

- Adierazpen edo agiri faltsuak, zehaztugabeak edo osatu gabeak erabiltzea edo aurkeztea, baldin eta horien ondorioa Batasunaren aurrekontuko edo Batasunak edo Batasunaren izenean administratutako aurrekontuetako funtsak edo aktiboak bidegabe erabiltzea edo funtsik gabe atxikitzea bada.
- Informazio jakin bat jakinarazteko berariazko obligazioa ez betetzea, baldin eta ondorio berbera badu, edo
- Funts edo aktibo horiek hasieran ematea eragin zuten helburuez bestelako helburuetarako bidegabe erabiltzea, eta Batasunaren finantza-interesei kalte egitea;

Esan behar da irregulartasun bat egoteak ez duela beti esan nahi iruzurra egon daitekeela; nahita egitea funtsezko elementua da iruzurrean, eta elementu hori ez da beharrezkoa irregulartasuna egoteko.

Europar erkideen finantza-interesak babesteari buruzko Kontseiluaren 1995eko abenduaren 18ko 2988/95 (EE, Euratom) Erregelamenduaren 1.2 artikuluan xedaturikoaren arabera, «*Irregulartasuna izango da eragile ekonomiko baten ekintza edo ez-egite bati dagokion Erkidegoko Zuzenbidearen xedapen baten arau hauste oro, baldin eta arau hauste horrek Erkidegoen aurrekontu orokorrari edo Erkidegoek administratutako aurrekontuei kalte egiten badie edo arrisku hori badakar, dela Erkidegoen kontura zuzenean jasotako baliabide propioetatik datozen diru-sarrerak gutxituz edo ezabatuz, dela bidegabeko gastu baten bidez*».

5.3 USTELKERIA

Ustelkeria pasibotzat hartuko da Udaleko langileen ekintza, baldin eta, zuzenean edo bitartekari baten bidez, berentzat edo beste batzuentzat edozein eratako abantailak eskatzen edo jasotzen badituzte, edo abantaila baten promesa onartzen badute, langile horiek beren betebeharren edo beren eginkizunen arabera jardun dezaten edo ez dezaten, Batasunaren finantza-interesei kalte egiteko moduan.

Ustelkeria aktibotzat hartuko da, zuzenean edo bitartekari baten bidez, Astigarragako udaleko

langileei berentzat edo beste batzuentzat edozein eratako abantaila agintzen, eskaintzen edo ematen dien pertsona ororen ekintza, langile horiek beren betebeharren edo beren eginkizunen arabera jardun dezaten edo ez dezaten, Batasunaren finantza-interesei kalte egiteko moduan.

5.4 BIDEGABEKO ERABILTZEA

Bidegabeko erabileratzat hartuko da funtsak edo aktiboak kudeatzeko ardura zuzenean edo zeharka eman zaion edozein langilek nahita egindako ekintza funtsak konprometitzeko edo ordaintzeko, edo aktiboak bereganatzeko edo aurreikusitakoez bestelako helburuetarako erabiltzeko, betiere Batasunaren finantza-interesei edozein modutan kalte egiten badie.

5.5 DIRUA ZURITZEA

Honako jarduera hauek diru-zuritzetzat hartuko dira nahita egiten direnean:

- Ondasunak bihurtzea edo ondasunak transferitzea, ondasun horiek delituzko jarduera batetik datozela jakinda edo delituzko jarduera batean parte hartu dutela jakinda, ondasunen legez kanpoko jatorria ezkutatzeko edo estaltzeko asmoz edo jarduera horretan inplikaturik dauden pertsonen beren ekintzen ondorio juridikoak saihesten laguntzeko asmoz;
- Ondasunen edo ondasunen gaineko eskubideen benetako izaera, jatorria, kokapena, antolaera, mugimendua edo jabetza ezkutatzea edo estaltzea, ondasun horiek delituzko jarduera batetik datozela jakinda edo delituzko jarduera batean parte hartu dutela jakinda;
- Ondasunak eskuratzea, izatea edo erabiltzea, jasotzeko unean jakinaren gainean egonda ondasun horiek delituzko jarduera batetik datozela edo delituzko jarduera batean parte hartu dutela;

6.- ARRISKUAREN EBALUAZIOA. AUTOEBALUAZIORAKO GALDETEGIA

HPF71030, 2021 Aginduaren arabera -Europak eskatzen duen gutxieneko estandarrekin lotutako eskakizunak betetzeko autoebaluazio-zerrendari buruzkoa-, Astigarragako Udalak autoebaluaziorako galdetegia egin zuen (II. eranskina), eta hartatik abiatuta, Iruzuraren aurkako Plan hau definitu du, eta ondoren beste ebaluazio bat egin du.

Plan honetan ezarritako iruzurraren aurkako gainerako neurriei kalterik egin gabe, aldi behin iruzurraren arriskua, eragina eta probabilitatea ebaluatuko dira SEEP betearazteko funtsezko prozesuetan.

7.- PLANAREN EREMU OBJEKTIBOA

Iruzzurraren aurkako neurrien plan honen oinarritzko helburua da iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borroka aktiboa egitea, eta Astigarragako Udalari aukera ematea kudeatuko eta erabiliko dituen SEEPeko funtsak iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko aplikatu beharreko arauen arabera erabiliko direla bermatzeko.

Horretarako dokumentatu den estrategiaren helburua da erantzukizunaren, gardentasunaren, baliabideen optimizazioaren, betetze-mailaren, zuzentasunaren eta helburuen arabera kudeaketaren printzipioak biltzen dituen antolaketa-eredua lortzea, bai eta horien jarraipena eta kontrola egitea ere.

Europar Batasuneko araudian xedatutakoaren eta finantza-kudeaketa onaren printzipioaren arabera, Udalak SEMeko funtsak kudeatzeko eta/edo erabiltzeko lanetan barne-kontrol eraginkor eta efizientea beteko du zorrotz, egikaritze-metodo bakoitzari egokituta eta sektore publikoko barne-araudia erabat bete eta errespetatuta.

8.- APLIKAZIO-EREMU SUBJEKTIBOA

Iruzzurraren aurkako Plan honen neurriak diru publikoaren kudeaketan diharduten Astigarragako Udaleko langile guztiei aplikatuko zaizkie, eta, zehazki, SEEPeko finantziarioa duten proiektuak diseinatzearekin, kudeatzearekin, lantzearekin edo egikaritzearekin zerikusia duten guztiei.

Horiek guztiek ezagutu eta bete behar dute Plan hau, eta, beraz, honako eginkizun hauek bete behar dituzte bereziki:

- Zuzentasun-, objektibotasun-, kontu-emate- eta zintzotasun-mailarik gorenaren arabera jardutea uneoro.
- Iruzzurraren aurkako Plan honetan eta berau osatzen duten dokumentuetan ezarritako prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurriak gauzatzea, bai eta SEMeko funtsen kudeaketari begira aplikatzekoa den araudian ezarritakoak ere.
- SEMeko funtsak kudeatzeko, kontrolatzeko edo/eta ordaintzeko prozedurarik ez dute egingo iruzur-zantzuak baldin badituzte, eta Iruzzurraren aurkako Batzordeari jakinarazi behar diote berehala.
- Iruzzurraren aurkako Batzordeari bidalitako alertei edo batzorde horrek eskatzen duen beste edozein informaziori buruzko informazio-eskaerei erantzutea.
- Nahitaez egin eta parte hartzea prestakuntza jardunaldietan.
- Planaren ardura duten organoekin elkarlanean aritzea, beharrezkoa denean eta/edo eskatzen zaienean, eta eskatzen zaien informazioa eta dokumentazioa berehala ematea.
- Udaleko Iruzzurraren aurkako Batzordeari berehala jakinaraztea gerta litekeen iruzur-egoera bat edo harekin lotutako legez kanpoko beste jokabide bat saihesteko edo konpontzeko edozein

ekintza, baldin eta egoera horren jakitun badira eta/edo kudeatzen ari badira.

SEMeko funtsak kudeatzeko prozeduraren edozein zatitan parte hartzen duten langileek Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA – V. eranskina) bete beharko dute aldez aurretik.

9.- PLANAREN ARDURA DUTEN ORGANOKAK

Plan hau behar bezala aplikatuko dela bermatzeko, honako organo hauek sortu dira:

a.- Iruzurra kontrolatzeko pertsona bakarreko organoa

Udal kontu-hartzailea izendatu da iruzurra kontrolatzeko pertsona bakarreko organo. Pertsona horrek izango du zuzentasunaren eta iruzur-arriskuen prebentzioaren ardura, eta honako eginkizun eta erantzukizun hauek izango ditu, besteak beste:

- Plana eguneratzeko proposamenak formalizatzea eta/edo haiei buruzko informazioa ematea.
- Iruzuraren arriskua, eragina eta probabilitatea autoebalutzeko planak bultzatzea, koordinatzea eta egitea SEEP betearazteko funtsezko prozesuetan.
- Planean aurreikusitako neurriak bete daitezen sustatzea.
- Aplikatu beharreko neurri zuzentzaileak identifikatzea eta haien premia-maila baloratzea.
- Informazioa kudeatzeko prozesuak ezartzea eta garatzea (erreklamazioak, salatze bideak eta abar).
- Udaleko langileek plan hau ezagutzen dutela ziurtatzeko neurriak proposatzea, eta sentsibilizazio- eta prestakuntza-zikloak bultzatzea, iruzur-arriskuen prebentzioari, detekzioari eta kudeaketari begira dituzten erantzukizunak beren gain hartzeko beharreko ezagutzak eta gaitasunak izan ditzaten; eta salatze bidea ezagutaraztea.
- Iruzur-kasuak gertatzen direnean, ikerketa guztiak erakunde eskudunei bidali zaizkiela ziurtatzea.
- Iruzuraren aurkako neurrien planari, haren garapenari eta egikaritze praktikoari buruzko dokumentazioa zaintzea, bai eta Udalean SEMeko funtsen kudeaketan sortzen den informazio dokumentatu guztia ere.
- Egon daitezkeen iruzur, ustelkeria eta interes-gatazken kasuak behar bezala detektatu eta ikertu direla eta haiei amaiera eman zaiela zaintzea.
- Udaleko Iruzuraren aurkako Batzordeak agintzen dizkion eginkizunak.

b.- Udaleko Iruzuraren aurkako Batzordea

Ogasun eta Ondare Batzordea izendatu da Plan hau beteko dela bermatzeko eta jarraipena egiteko organo. Honako eginkizun hauek izango ditu:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- Plan hau egokitzeko, eguneratzeko eta/edo aldatzeko proposamenak Osoko Bilkurari aurkeztea.
- Iruzzurraren aurkako politika eta iruzur-saiakerak prebenitzeko, detektatzeko, zuzentzeko eta jarraitzeko behar diren neurrien diseinua definitzea.
- Prestakuntza-plana egitea.
- Adierazpen instituzionaleko proposamenak Osoko Bilkurari aurkeztea eta web orrian argitaratzea.
- Salaketen postontzia martxan jartzea.
- Jasotako salaketak hartzea eta aztertzea.
- Zuzentzeko eta, hala badagokio, jazartzeko neurriak hartzea.
- Iruzzurraren aurkako Planean ezarritako neurriak ez betetzea egoki eta proportzionalki zigortzen duen diziplina-araubidea aplikatu dela ziurtatzea.
- Hala badagokio, prozeduren eskuliburua egitea.

10.- INTERES-GATAZKEI AURRE EGITEKO NEURRIAK

10.1 Prebentzio-neurriak

Toki-erakundeak interes-gatazkak prebenitzeko ezarri dituen neurrien artean, honako hauek daude:

1.- Interes-gatazken modalitateei eta haiek saihesteko moduei buruzko komunikazioa eta informazioa ematea langileei.

- Iruzzurraren Aurkako Plana onartzea.
- Udaleko politikariei, funtzionarioei eta langileei plana aurkezteko saioa.
- Iradokizunen edo salaketen postontzia sortzea.
- Web orrian esteka jartzea Iruzzurraren Aurkako Planera eta abarrera jotzeko.

2.- Udaleko langileen erantzukizunpeko adierazpena.

Funtzio publikoan edo zinegotzi eta/edo alkate karguetan hasten diren pertsona guztiek erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko dute. Hartan adieraziko da, plan hau jaso ondoren, berau onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen dutela, eta plan honi eragin diezaiokeen edozein gorabehera kontrol-organoei jakinaraziko dietela (IV. eranskina).

3.- Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena betetzea (IGEA – V. eranskina).

SEMeko funtsak kudeatzeko, gauzatzeko, kontrolatzeko eta ordaintzeko prozeduretan parte hartzen duten pertsona guztiek Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA – V. eranskina) bete beharko dute aldez aurretik.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Nolanahi ere, honako hauek sinatu beharko dute IGEA: dirulaguntza kontratatze/emateko organoaren arduradunak, lizitazioaren dokumentuak/oinarriak eta/edo deialdiak idazten dituzten langileek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatze batordeetako kideek eta prozedurako gainerako kide anitzeko organoek.

Gainera, IGEA nahitaez sinatu beharko dute, SEMeko funtsen kargura laguntza emateko baldintzen barruan, interes-gatazka sortzeko moduko jarduerak egin behar dituzten onuradunek.

4.- Zorrotz aplikatuko dira urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 53. artikulua, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen printzipio etikoei buruzko testu bategina onartzen duena, eta 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa. Lege horien arabera, enplegatu publikoek beren lanean uneoro bete behar dituzte sektorean indarrean dauden printzipio etikoak eta gardentasun-printzipioak.

4. Zorrotz aplikatuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua, abstenitzeari buruzkoa.

10.2 Zuzentzeko neurriak.

Detektatutako interes-gatazkei aurre egiteko neurri gisa, honako hauek hartu dira:

1. Interes-gatazka egoteak sor dezakeen egoeraren berri ematea.

Komunikazio hori zuzenean egin ahal izango zaie hierarkian gorago dagoenari, Udaleko kontu-hartzaileari (iruzurra kontrolatzeko pertsona bakarreko organoa), Udaleko Iruzuraren aurkako Batzordeari, edo bestela, iradokizunen edo salaketen postontzira bidali ahal izango da.

Interes-gatazka dagoela uste bada, edo hari buruz ebatzi arte, inplikaturako pertsonak honako arau hauen arabera jokatu beharko dute:

- Ezin izango dute isilpeko informazioa eskuratu.
- Eztabaidetan eta erabakiak hartzean abstenitu egingo dira.
- Interes-gatazka konpontzen lagunduko dute.
- Beren egoeraren berri eman beharko diete organoko gainerako kideei eta Iruzurra Kontrolatzeko Organoari.

Nolanahi ere, interes-gatazka dagoela egiaztatuz gero, pertsonak bertan behera utzi beharko du gai horrekin lotutako jarduera oro, eta aplikatzekoa den zuzenbidearen arabera dagokion beste

edozein neurri gehigarri hartuko du.

2. Zorrotz aplikatuko da Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua, errekusatzeari buruzkoa.

11.- IRUZURRA ETA USTELKERIA PREBENITZEKO, DETEKTATZEKO ETA ZUZENTZEKO NEURRIAK: IRUZURRAREN AURKAKO ZIKLOA

SEMen Erregelamenduaren 22. artikulua estatu kideak behartzen ditu iruzurra eta ustelkeria prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak hartzea, eta bidegabe eskuratu diren funtsak berreskuratzeko legezko ekintzak egitera. Beraz, SEPEko jarduketetan parte hartzen duten erakundeek iruzurraren aurka neurri proportzionatuak aplikatu behar dituzte, iruzurraren aurkako zikloaren funtsezko lau elementuen inguruan egituratuak: prebentzioa, detekzioa, zuzenketa eta jazarpena.

Horren harira, Astigarragako Udalak honako neurri hauek hartu ditu Plan honetan:

11.1 Prebentzio-neurriak

Ondoko prebentzio-neurri hauek hartu dira iruzurraren hondar-arriskua maila onargarria murrizteko:

1.- Kultura etikoa

Astigarragako Udalak zuzentasuna, objektibotasuna, kontuak ematea eta zintzotasuna bezalako balioen sustapenean oinarritutako kultura etikoa defendatu du eta defendatzen du. Horren harira, Astigarragako Udaleko zinegotziek, 2016ko maiatzaren 21ean egindako osoko bilkuran, aho batez onartu zuten “*Astigarragako Udaleko zinegotzien Kode Etikoa*” izeneko dokumentua, plan honetan txertatu dena (I. eranskina).

Gainera, salaketen postontzia sortzea onartu da, interesa duen edonorentzat eta, oro har, herritarrentzat irekia.

2.- Prestakuntza eta kontzientziazioa

Udalak konpromisoa hartu du gai horri buruz egiten diren prestakuntza-jardunaldietan parte hartzeko. Era berean, langileek iruzurra, ustelkeria, eroskeria, interes-gatazkak eta dirua zuritzea prebenitzeko prestakuntza-ekintzetan parte har dezaten sustatuko du, langileak trebatzeko, funts publikoen erabileraren jokabide ez etikoa, eta, hortaz, iruzurra izan daitekeena detektatzen eta prebenitzen lagunduko duten irakaskuntzak berenganatuta.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Gainera, Udalak konpromisoa hartu du langileak bultzatzeko iruzurraren aurkako konpromiso irmoa hartu eta argi eta garbi adieraz dezaten, iruzurraren aurrean zero tolerantzia erakusteko eta iruzur-arriskua kudeatzeko erabakiak hartzerakoan planteamendu proaktibo eta eraginkorra garatzeko. Horretarako, funtzio publikoan edo zinegotzi eta/edo alkate karguetan hasten diren pertsona guztiek erantzukizunpeko adierazpena sinatuko dute, interes-gatazkei aurre egiteko prebentzio-neurri gisa jaso dena (Plan honen IV. eranskina).

3.- Udaleko zinegotzien inplikazioa

Astigarragako Udalak konpromiso irmoa hartu du iruzurraren aurka eta argi adierazi du, iruzurraren aurrean zero tolerantzia dakarrena, eta planteamendu proaktiboa, egituratua, espezifikoa eta eraginkorra garatu nahi du iruzur-arriskua kudeatzeko erabakiak hartzerakoan.

Horregatik, Astigarragako Udaleko zinegotziek, Iruzuraren aurkako Plan honekin batera doan Adierazpenaren bidez (III. eranskina), iruzurraren aurka konpromiso irmoa eta iruzurraren aurrean zero tolerantzia adierazi dute.

4. Udalak, –kontabilitate-auditoriak egiteaz gain–, arriskua ebaluatzeko mekanismo egokiak ezarriko ditu, honako hauek oinarritzat hartuta:

- Iruzurra gehien eragin dezaketen neurriak, hala nola intentsitate handikoak, aurrekontu handikoak, eskatzaileak justifikatu beharreko baldintza asko dituztenak, kontrol konplexuak eta abar.
- Egon daitezkeen interes-gatazkak.
- Barne-auditorien aurretiazko lanen emaitzak.
- Europako Batzordearen edo, hala badagokio, Europako Kontuen Auzitegiaren auditorien emaitzak.
- Aurretik hautemandako iruzurrak.

Ebaluazio hori SEEPeko funtsekin finantzatutako proiektu guztietan egingo da, bai eta ausaz aukeratuko diren beste udal espediente batzuetan ere.

5.- Kontratazioaren arloan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legean eta Astigarragako Udalaren Herritarren Parte-hartze, Informazio eta Gardentasun Ordenantzan adierazitako baldintzez gain, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

➤ Hirugarrenak hautatzea.

Hirugarrena hautatzeko, ondoko arau hauek bete beharko dira, aplikatu beharreko araudiak horretarako aukera ematen baldin badu:



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- Erakundeak eskaintza-eskaera idatziko du, eta bertan idatziz zehaztuko ditu eskatutako zerbitzuaren ezaugarriak, aurrekontu argi eta homogeneoak eskuratzeko.
- Enpresa esleipendunari eskatuko zaio berariaz adierazteko laneko arriskuen prebentzioari eta langileen eskubideei buruzko arauak, iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako arauak eta lehia librea babesten duten arauak betetzen dituela.
- Hautaketa guztietan, ahal bada bederen, gutxienez bi hornitzailek hartuko dute parte, eta, ahal dela, hiruk, kasuan kasuko kontrataziorako egokienez artean, betiere honako irizpide hauek kontuan hartuta: prezioa, zerbitzuaren kalitatea eta hornitzailearekiko harreman historikoa.
- Berariaz debekatuta dago aurrekontuak eskatzen zaizkien hornitzaileei beste eskaintza batzuen datu ekonomikoak ematea.
- Proposatutako eskaintzak eskuratu ondoren, gardentasunaren eta berdintasunaren printzipioak aplikatuta aztertu eta baloratuko dira.
- Egokitzat jotzen bada, jasotako eskaintzen baldintzak negoziatuko dira. Baldintzen negoziazioa eta, bereziki, baldintza ekonomikoena, modu gardenean egingo da.
- Azkenik, eskaintzarik onena aukeratuko da.
- Hautaketa-prozesuan Iruzuraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (IBEB, OLAF ingelesez) eta Europako Batzordeak arlo horretan emandako gomendioei jarraituko zaie, hala nola:
 - IBEB: Iruzurra kontratazio publikoan. Alerta-adierazleak eta jardunbide egokiak biltzea.
 - 2021/C 91/01 komunikazioa, kontratazio publikoan kolusioari aurre egiteko tresnei eta harekin lotutako bazterte-arrazoia aplikatzeko orientazioei buruzkoa.

Hirugarrena hautatzeko prozesuak behar bezala dokumentatua egon behar du.

➤ Kontratazio prozesua.

Hirugarrenei eta proiektuei begira formalizatu beharreko kontratuaren edukiak honako xedapen hauek bete beharko ditu:

- Idatziz egin beharko da, eta funtsezko baldintzak jasoko ditu politika honetan xedatutakoaren arabera.
- Argi eta garbi zehaztuko ditu Erakundearen eta Hirugarrenaren eskubideak eta betebeharrak, eta datu pertsonalak babesteari buruzko araudian ezarritakoa bete beharko du betiere.
- Konplexutasunaren arabera, Erakundearen aholkularitza juridikoak berrikusi ahal izango ditu kontratuak.

6. Udalak sakonki eta arin egingo ditu ikerketak iruzurra egin dela susmatzen den kasu guztietan, bai eta egiaz iruzurra egin den kasuetan ere, kudeaketarako eta kontrolerako barne-sistema eraginkorra ezarri ahal izateko, behar bezala diseinatua eta kudeatua, identifikatzen diren arriskuak eraginkortasunez arintzeko kontrolekin.

7. Datuen azterketa. Datuak babesteari buruzko mugen barruan, sektoreko beste erakunde publiko

edo pribatu batzuekin gurutzatuko dira datuak, arrisku handiko egoerak detektatu ahal izateko.

11.2 Detekzio-neurriak.

Ulertuta prebentzio neurriak ez direla aski iruzurraren aurka babes osoa emateko, zenbait sistema aukeratu dira prebentziotik ihes egin dezaketen iruzurrezko portaerak garaiz detektatzeko.

Udalak dituen legezko betebeharez gain, iruzurra detektatzeko tresna hauek ezarri dira:

1. Mekanismo egokiak eta argiak ezartzea, detektatzen dituztenek iruzur-susmoen berri emateko.

2. Salaketa-kanal bat ezartzea.

Udalak salaketa-kanal bat ezarri du, eta, haren bidez, bertako langileek, SEMeko funtsen onuradunek edo aurrekoekin zerikusia duten hirugarrenek iruzurraren aurkako neurriei eta/edo barne-araudiari buruzko zalantzak azaldu ahal izango dituzte, bai eta legezko xedapenak edo barne-araudia ez dela bete adierazi edo itxuraz legez kontrakoak diren jarduerak egin direla jakinarazi ere.

Jakinarazpenak posta elektronikoz bidaliko dira, gardentasuna@astigarraga.eus helbidera. Hala ere, langileek, SEMeko funtsen onuradunek edo hirugarren batek eskura duten beste edozein bitartekoren bidez (postontziak, telefono-postontziak edo hitzezko postontziak) bidali ahal izango dituzte jakinarazpenak, informazio hori udalari modu frogagarrian helarazteko moduan.

Jakinarazpenak honako datu hauek izan beharko ditu:

- Arriskuen edo ez-betetzeen berri ematen duenaren izen-abizenak. Hala ere, Astigarragako Udalak modu anonimoan izapidetuko ditu jakinarazpen eta/edo salaketa guztiak.
- Informazioa nola eskuratu den eta informazio horren egitasuna.
- Gertaeren deskribapena, ahalik eta zehatzen eta xehetasun guztiekin.
- Ahal den guztietan, gertaeretan parte hartu duten pertsonen identifikazioa.
- Ustezko irregulartasunak edo iruzurrak ukitutako negozioak, deialdiak, tresnak edo espedienteak.
- Gertaerak noiz izan ziren, data zehatza edo gutxi gorabeherakoa.
- Laguntzak zein organok edo erakundek kudeatu dituen.
- Hala badagokio, informazioa beste zein organori edo erakunderi igorri zaien.
- Komunikazioarekin batera, ahal izanez gero, jakinarazitako gertaerak egiaztatzea eta haien inguruan egin beharreko jarduerak egitea erraztuko duen edozein dokumentazio edo frogagiri aurkeztu ahal izango da.

Komunikazio-bide hori herritar guztientzat ere eskuragarri egongo da, nahiz eta ez izan prozedura jakin baten parte.

3. Iruzzurren adierazleak (bandera gorriak) garatzea eta adierazle horiek detektatzeko tokian dauden langileei jakinaraztea.

Bandera gorri horien adibide gisa, gehien erabiltzen direnak aipatuko dira jarraian, iruzurrekoak izan daitezkeen jardueren tipologiaren arabera sailkatuak.

Prozeduraren baldintza-agiriak, lizitatzailer baten alde iruzurrez moldatuak:

- Antzekotasun oso handia prozeduraren baldintza-agirien eta kontratista irabazlearen produktuen edo zerbitzuen artean;
- Beste lizitatzailer batzuen kexak;
- Baldintza agiriek agindu murriztaileak dituzte;
- Baldintza agiriek ezohiko edo zentzugabeko klausulak dituzte;
- Botere esleiztaileak marka jakin baten produktu bat definitu du, produktu generiko bat izan beharrean.

Kolusio-lizitazioak:

- Irabazi duen eskaintza handiegia da aurreikusitako kostuekin, prezio publikoen zerrendekin, antzeko obra edo zerbitzuekin edo industriako batez bestekoekin, edo merkatuko erreferentzia-prezioekin alderatuta;
- Lizitatzailer guztiek prezio handiak eskaintzen dituzte etengabe;
- Eskaintzen prezioak bat-batean jaitsi dira, prozeduran lizitatzailer berriek parte hartu dutenean;
- Esleipendunak eskualdeen, lan-motaren eta obra-motaren arabera banatzen/txandakatzen dira;
- Esleipendunak lizitatzailer galtzaileak azpikontratatu ditu;
- Ohiz kanpoko eskaintza-ereduak (adibidez, eskaintzek beherapen-ehuneko zehatzak dituzte, irabazi duen eskaintza prezio onargarrien atalasearen azpitik dago justu, kontratuaren aurrekontuaren zenbatekoa eskaini da zehazki, eskaintzen prezioak handiegiak dira, hurbilegiak, oso desberdinak, zenbaki biribilak, osatu gabeak, etab.).

Interes-gatazka:

- Faboritismo ulertezina edo ezohikoa sustatzaile, kontratista edo enpresa jakin baten alde;
- Prezio handiak eta kalitate eskaseko lanak eta abar etengabe onartzea;
- Kontratazioaz arduratzen den langileak ez du interes-gatazkaren adierazpena aurkeztu edo osatu gabe aurkeztu du;
- Kontratazioaz arduratzen den langileak uko egin dio mailaz igotzeari, erosketekin zerikusirik ez duen maila batera igotzeari, hain zuzen;
- Kontratazioaz arduratzen den langileak bere negozioak egiten dituela dirudi;
- Langileen aberastasuna edo bizi-maila nabarmen handitu da bat-batean edo inolako esplikaziorik gabe.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Aurkeztutako eskaintzak manipulatzeko:

- Lizitatzaileren kexak;
- Kontrol falta eta lizitazio prozedura desegokiak;
- Eskaintzak jaso ondoren aldatu egin direla erakusten duten zantzuak;
- Akatsak izateagatik baztertutako eskaintzak;
- Gaitasuna duen lizitatzailera zalantzarik arrazoiengatik baztertua;
- Prozedura eman gabe utzi da eta berriro deitu da, gutxienezko kopurua baino eskaintza gutxiago jaso izan arren.

Gastua zatitzea:

- Bi erosketa, zerbitzu eta obra edo gehiago daude, antzeko xedea dutenak eta esleipendun berari egin zaizkionak, zuzeneko esleipen-prozedurak edo esleipen-prozeduren atalaseak erabiltzeko onartutako mugen azpitik, edo lehia-berme handiagoko prozedurak eskatuko lituzketenak.
- Erosketak, zerbitzuak eta obrak arrazoirik gabe bereiztea, esate baterako, kontratu bereziak eskulanerako eta materialetarako, biak lizitazio irekiko atalaseen azpitik egonda;
- Erosketa sekuentzialak, esleipen-prozeduren atalaseen azpitik justu.

4. Eskura dauden beste tresna batzuk.

Era berean, Udalak iruzurra detektatzeko beste tresna batzuk ere erabili ahal izango ditu, toki-administrazioaren eskura daudenak (datu-baseak, arriskua ebaluatzeko tresnak, etab.), gaur egun edo etorkizunean.

11.3 Zuzentzeko neurriak

Iruzurra detektatuz gero, edo haren susmo arrazoitua izanez gero, Iruzuraren aurkako Batzordeak honako jarduera hauek egingo ditu:

- prozedura berehala etengo du,
- egoera hori ahalik eta lasterren jakinaraziko die agintari interesdunei eta jarduerak egiten dituzten erakundeei,
- iruzurraren eraginpean egon diren proiektu guztiak berrikusiko ditu,
- iruzurraren eragina ebaluatuko du eta sistemikotzat edo puntualtzat joko du eta
- erretiratu egingo ditu iruzurrak eragindako proiektuak, edo haien zatiak, SEMek finantzatuak edo finantzatu beharrekoak.

Irregularitasun sistemikoak detektatzen badira, honako neurri hauek hartuko dira:

- Eragiketa horretan sartutako espediente guztiak eta/edo antzeko izaera ekonomikoa dutenak berrikusiko dira.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- Detektatutako gorabehera identifikatu den espediente guztietan Europar Erkidegoko finantzaketa kentzeko eskatuko da.
- Detektatutako ahultasuna konpontzeko hartu beharreko neurriak jakinaraziko zaizkie unitate betearazleei, aurkitutako gorabeherak berriro gerta ez daitezen.
- Barne-kontrolako sistemak berrikusiko dira, gorabehera horiek egiaztapenaren hasierako faseetan detektatzeko mekanismo egokiak ezarri ahal izateko.

11.4 Jazarpen-neurriak. Iruzurra gertatuz gero jarduteko prozedura.

a.- Salaketak jaso eta ikertzea

Udal kontu-hartzailea arduratuko da salaketa-kanala kudeatzeaz eta jasotako komunikazioak hartzeaz, eta Iruzzurraren aurkako Batzordeari helaraziko dizkio.

Salaketa-kanalaren bidez jakinarazpen edo salaketa bat jasotzen denean, edo bestelako bide batzuetatik, baita kanpokoak ere, jakiten denean SEMeko funtsak kudeatzeaz eta gauzatzeaz arduratzen diren udaleko langileek edo hirugarren pertsonak, baita onuradunek eta/edo kontratistek ere, iruzur-susmoa edo delitu-susmoa duen jokabidea izan dutela, Iruzzurraren aurkako Batzordeak haren irismena aztertu eta izapidetuko du.

Iruzzurraren aurkako Batzordeak beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapenak eta jarduerak egingo ditu, aplikatu beharreko xedapen arau-emailek ematen dizkieten ahalmenen esparruan. Horretarako, bidezkotzat jotzen duen dokumentazio edo informazio osagarria eskatu ahal izango die bai komunikatzaileari, bai behar den dokumentazioa edo informazioa izan dezaketen organoei, erakundeei edo pertsona fisikoei.

Iruzzurraren aurkako Batzordeak ez du jasotako informazioa tramitatuko gertaerek SEMeko funtsei eragiten ez dietenean. Hala ere, gaiaren arabera eskumena duen arloari, organoari edo erakundeari bidaliko dio informazioa, aztertu edo iker dezan.

Iruzzurraren aurkako Batzordeak iruzurra kontrolatzeko organoari bidaliko dizkio jakinarazpen eta salaketa guztiak, bai eta haien inguruan egindako izapideak ere. Organo horrek gutxienez 5 urtez gorde eta artxibatu beharko lituzke komunikazio eta salaketa guztiak, edo epe luzeagoaz legezko xedapen batek hala eskatzen badu. Salaketek honako datu hauek izan beharko lituzkete:

- Komunikazioaren jakinarazpen-data.
- Aztertutako informazioa eta/edo dokumentazioa.
- Egindako egiaztapena edo ikerketa.
- Hartutako erabakiaren arrazoiak.
- Emandako identifikazio-kodea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Iruzurraren aurkako Batzordea osatzen duten pertsonak eta udaleko kontu-hartzaileak (iruzurra kontrolatzeko pertsona bakarreko organoa) isilpean gordetzeko obligazioa dute beti. Berariaz bermatuko dute, nolahi ere, informatzailearen nortasunari eta emandako informaziori buruzko konfidentzialtasuna, datu pertsonalak babesteari buruzko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta aplikatu beharreko gainerako garapen-arauetan, bai eta salaketa-kanalei buruzko Europako araudian ere, xedatutakoaren arabera, araudi horren printzipio orokorrak aintzat hartuko baitira Zuzentaraua barne-zuzenbidera ekarri arte.

b.- Prozedura etetea eta berrikustea

Iruzurraren aurkako Batzordeak prozedura bertan behera uzteko aginduko du berehala (eskatzaileen ebaluazioa eta hautaketa, eragiketak gauzatzea -lizitazioa, lehiaketa, hitzarmena, proiektuaren garapena, etab.-, SEMeko funtsen kargura ordainketak onartzea eta egitea eta abar) eta ahalik eta lasterren jakinaraziko die egoera hori agintari interesdunei eta jarduerak egin behar dituzten erakundeei.

Iruzurraren aurkako Batzordeak hasierako txostena egingo du, eta bertan azalduko ditu jasotako informazioaren balorazioa eta irismena. Jasotako jakinarazpenak edo salaketak Iruzurraren aurkako Batzordeko kideren bati zuzenean eragiten badio, abstenitu beharko du edo errekusatu egin beharko dute, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Pertsona horrek ezin izango du espedientearen instrukzioan parte hartu, ez eta Iruzurraren aurkako Batzordearen jardueren berri izan ere.

Barne-egiaztapena edo barne-ikerketa egiteko orduan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean aurreikusitako prozedura eta erregelamenduzko xedapenak bete eta jarraitu beharko dira, bai eta une bakoitzean aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko eta tokiko gainerako araudia ere.

Kontrako arauzko xedapenik ezean, prozeduran zehar egoeraren berri emango zaio Iruzurraren aurkako Batzordeari, bai eta kasuaren jarraipenean egindako jardueren eta hartutako erabakiaren berri ere.

Iruzurraren aurkako Batzordea arduratuko da jakinarazitako iruzurraren eraginpean egon ahal izan diren proiektu, azpiproiektu edo ekintza-ildo guztiak berrikustez.

Iruzurraren aurkako Batzordeak Astigarragako Udaleko langileen edo egokitzen jotzen dituen adituen laguntza eskatu ahal izango du.

Iruzurraren aurkako Batzordeak txosten bat egingo du eta bertan azalduko ditu iruzurraren balorazioa eta irismena, bai eta iruzurraren arriskua, eragina eta probabilitatea ere SEEP betearazteko funtsezko prozesuetan (eta bereziki gertatu den prozesuan). Gainera, espedientea sistematikoki edo puntual gisa sailkatu beharko du.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Horretarako, iruzur puntualtzat hartuko da akats bakarra denean eta beste akats batzuekin loturarik ez duenean herrian, edo sistematikoaz bestelakoa denean. Aldiz, iruzur sistematiko gisa sailkatuko dira behin eta berriz gertatzen diren irregulartasunak, antzeko eragiketetan gertatzeko probabilitate handia dutenak, kudeaketa- eta kontrol-sistema baten funtzionamendu eraginkorrean izandako akats larri baten ondorioz (berezik, prozedura egokirik ez ezartzea SEMeko funtsei aplikatu beharreko arau espezifikoen arabera).

c.- Udalbatzaren Osoko Bilkurari jakinaraztea

d.- Salaketa

Iruzurraren edo irregulartasunaren zantzuak daudenean, edo, beste edozein unetan, jakinarazitako gertakarien larritasuna, haiek egiaztatze behar diren ahalmenak, une bakoitzean dauden bitartekoak eta kasu bakoitzean gertatzen diren gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, Udalak gertakari horiek salatuko ditu Iruzurraren aurkako Koordinazio Zerbitzu Nazionalean (SCNA), Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailatza Nagusian (IGAE), baloratzeko eta Iruzurraren Aurka Borrokatzeko Europako Bulegoari (IBEB) jakinarazteko.

Agintari eskudunei egiten zaizkien jakinarazpenekin batera txosten bat aurkeztu beharko litzateke, Iruzurraren aurkako Batzordeak hartutako erabakiari buruzko informazioa eta erabaki horren arrazoiak bilduko dituen, hartutako neurri guztiak aipatuta.

Gainera, barne-ikerketatik, edo geroagoko une batean egiaztatzen bada legez kontrako zerbait egin dela edo hori pentsatzeko arrazoizko zantzuak daudela, Iruzurraren aurkako Batzordeak Ministerio Fiskalari eta/edo epaitegi edo auzitegi eskudunei aurkeztuko die gertaeren salaketa.

e.- Lankidetzaren Agintari Eskudunekin

Astigarragako Udalak ahalik eta arreta handienarekin lagunduko die aurreko ataletan adierazitako agintari eskudunei. Udal kontu-hartzailea (iruzurra kontrolatzeko pertsona bakarreko organoa den aldetik) arduratuko da agintari eskudunen errekerimenduei erantzuteaz, haietan adierazitako epearen barruan, errekerimendu horiek besterik xedatzen ez badute behintzat. Horrela, besterik xedatu ezean, Udaleko langileek informazio-errekerimendu bat jasotzen dutenean, berehala jakinarazi beharko diote kontu-hartzaileari, eta hark aztertu egingo du, dagokion dokumentazio eta/edo informazio guztia bilduko du, erantzuna idatziko du eta informazioa eskatu duen agintaritzaren eskudunari bidaliko dio, eta horren berri emango dio Iruzurraren aurkako Batzordeari.

Udalak erregistro bat izango du agintari eskudunaren errekerimenduekin eta haiei emandako erantzunekin.

f.- Diziplina-espedientea

Astigarragako Udalak, iruzur-kasuen erantzukizunak argitzeko, dagokion zehapen-espedientea abiaraziko du eta, beharrezkoa denean, aldez aurretik informazio erreserbatua hasiko du.

Horretarako, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren II. kapituluaren aurreikusitako prozedura eta erregelamenduzko xedapenak beteko dira, bai eta une bakoitzean aplikatzekoa den autonomia-erkidegoko eta tokiko gainerako araudia ere.

Bere langileei dagokienez, Udalak prozedura abiaraziko du Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen 94.1 artikuluan xedatutakoari jarraiki emandako diziplina-ahalaren arabera, hargatik eragotzi gabe arau-hauste horien ondorioz sor daitekeen ondare- edo zigor-erantzukizuna.

12.- PLANAREN JARRAIPENA ETA ALDIZKAKO KONTROLA

Astigarragako Udalak bere gain hartuko du planeko neurrien jarraipena egiteko informazio-sistema egokia ezartzeko konpromisoa, eta bere gain hartuko ditu, halaber, zuzentasunaren aurkako ekintzak, iruzur-ekintzak edo ustelkeria-ekintzak prebenitzeko, detektatzeko eta kontrolatzeko erantzukizunak.

Era berean, barne- eta kanpo-komunikaziorako kanalak jarriko dira, langileek beren kudeaketan hautemandako arriskuen berri eman dezaten, bai eta jarduera desegokien edo arau-hausteen kasuen berri ere.

Horri dagokionez, langileek iruzurra, ustelkeria edo interes-gatazka daudela susmatzen dutenean, berehala jakinarazi beharko dute salaketa-kanalaren bidez (gardentasuna@astigarraga.eus).

1.- GAINBEGIRATZEA

Aldian behin kontrola egingo da, planaren arauak eta ondorio praktikoak betetzen direla egiaztatzeko.

Jarraipen-prozesuak bermatuko du kontrol-mekanismo egokiak aplikatzen direla eta prozedurak maila guztietan jarraitzen direla.

Plana betetzeari buruzko urteko txostena egingo da urtero, eta Udalbatzaren Osoko Bilkurari aurkeztuko zaio.

2.- PLANA BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA

Plana betetzeari buruzko urteko txostenak adieraziko du, bai eta ez-betetzeak edo iruzur edo



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

ustelkeria kasuak egoteak ere, plana eguneratzeko beharra, egindako jarraipenaren arabera, eta beharrezkoa den guztietan berrikusi egin beharko da, aurreko paragrafoan aurreikusitako ebaluazioak kontuan hartuta.

Udal kontu-hartzaileak (erakundeen zuzentasunaren eta iruzur-arriskuen prebentzioaren arduraduna), hala badagokio, kontrol-organoa berrikustea eta errealitatera egokitzea proposatuko du, gardentasuna bermatuko duten eta arriskuak minimizatuko dituzten hobekuntzen bidez.

3.- KOMUNIKAZIOA ETA HEDAPENA

Informazioa kudeatzeko prozesuak garatu eta ezarriko dira, eta komunikazio-plana egingo da, langile guztien (Udaleko funtzionarioak eta politikariak) parte hartzea eta inplikazioa errazteko.

Salaketak egiteko postontzia edo kanala ere jarriko da martxan (gardentasuna@astigarraga.eus), langile guztiek, zuzentasun instituzionalari buruzko informazio garrantzitsuaz gain, kudeaketa-arriskuei buruzko beste gai batzuen berri eman dezaten eta egokitzat jotzen dituzten hobekuntza-proposamenak egin ditzaten. Aurkeztutako proposamenak planaren organo ikuskatzaileak aztertuko ditu.

OSOKO BILKURAK AHO BATEZ ONARTUA, 2016KO MAIATZAREN 21EAN

Astigarragako Udaleko zinegotzien kode etikoa

Código ético de las y los concejales del Ayuntamiento de Astigarraga

1. PRINTZIPIO OROKORRAK

Euren kargu publikoari lotutako betebeharrak gisa, udalkideek jokabide zintzoa edukitzeko borondate menderaezina eduki behar dute. Berezi gaitzestekoak dira udala norberaren onurarako tresna gisa erabiltzeko helburu duten jokabideak. Kargu publiko bat betetzea interes orokorreari erantzuten dien zerbitzu bat da.

Errespetua oinarri izanik, pertsona eta erakunde ororekin arduraz eta begirunez jokatu behar dute, aurreiritzirik eta diskriminaziorik gabe, dagokion duintasun osoz. Halaber, bere kudeaketako eremuaren baitan dauden pertsonak errespetatu behar dituzte, bere lanarekiko satisfazio eta efikazia optimizatuz, eta autoritatearen erabilera desegokia sahiestuz.

2. APLIKATZEKO ESPARRUA

2.1. Kode hau aukeratuak izan diren udalkideei (alkate eta zinegotzi guztiei) aplikatuko zaie. Eta alkatearen edo udal gobernuaren lana bideratu eta errazteko konfiantzazko pertsonaren bat kontratatzen bada, kode etiko honetan zehaztutako baldintza eta neurriak azken horiei ere aplikatuko zaizkie.

1. PRINCIPIOS GENERALES

Los corporativos han de tener una voluntad irreductible de mantener una conducta íntegra como exigencia inherente a su cargo público. Son especialmente reprobables las conductas que tienen por objeto la instrumentalización del ayuntamiento para el beneficio personal. El ejercicio de un cargo público es un servicio que responde a los intereses generales.

Sobre la base del respeto, deben actuar con responsabilidad y respeto con toda persona e institución, sin perjuicio ni discriminación, con toda la dignidad debida. Asimismo, deben respetar a las personas incluidas en su ámbito de gestión, optimizando su satisfacción y eficacia laborales, evitando el uso inapropiado de la autoridad.

2. ÁMBITO DE APLICACIÓN

2.1. El presente código será de aplicación a los corporativos (el alcalde y todos los concejales) elegidos. Y en caso de que se contrate una persona de confianza para responsabilizarse o facilitar la labor del Alcalde o del gobierno municipal, las medidas y condiciones definidas en este Código Ético también serán de



Astigarragako Udala

2.2. Udalkide guztiek errespetatu eta onartu beharko dituzte Kode Etiko honen xedapenak. Horretarako, Kode Etiko honen kopia bana jasoko dute eta euren atxikimendu pertsonaleko adierazpena sinatuko dute, bertan jasotako xedapenak onartu eta haiekin bat egiten dutela adieraziz.

3. OINARRIZKO PRINTZIBIOAK ETA PRINTZIBIO ETIKOAK

3.1. Udalkideen jokabide etikoaren oinarrian egon behar dute zintzotasunak –bertute pertsonal gisa– eta euren karguak betetzeko konpromisoak, interes orokorren zerbitzura jarriz. Interes orokor horiek, beti, interes partikularren gainetik egon behar dute. Horretarako, bi interesen arteko gatazka eragin dezaketen egoerak ekidin behar dira.

3.2. Udalkideek euren karguak gobernu irekiko printzipioak errespetatuz betetzeko konpromisoa hartzen dute: gardentasuna, parte-hartzea eta laguntza.

3.3. Udalkide guztiek euren lana modu inklusiboan egiteko konpromiso irmoa eduki behar dute, dibertsitate soziala, kulturala, linguistikoa, erlijiosoa, generokoa, sexu-orientabidea eta -nortasuna eta nortasun funtzionala, besteak beste, errespetatuz.

3.4. Udalkideek zorrotasunez, zintzotasunez, ereduzkotasunez,

cumplimiento para dicha persona.

2.2. El respeto y la aceptación de las disposiciones del presente Código Ético son exigibles a todos los corporativos. A tal fin, recibirán una copia de este Código Ético y firmarán una declaración de adhesión personal al mismo, expresando su aceptación y vinculación a las disposiciones que en él se contienen.

3. PRINCIPIOS BÁSICOS Y PRINCIPIOS ÉTICOS

3.1. El comportamiento ético de los corporativos ha de estar centrado en la honradez como virtud personal y en el compromiso, en el desempeño de los cargos, de servicio a los intereses generales, que siempre deben prevalecer sobre los particulares, para lo que deben evitarse situaciones que puedan generar el conflicto entre ambos intereses.

3.2. Los corporativos se comprometen a ejercer su cargo de acuerdo a los principios de gobierno abierto: transparencia, participación y colaboración.

3.3. Todo corporativo debe tener un firme compromiso de practicar su labor de forma inclusiva, con respeto a la diversidad social, cultural, lingüística, religiosa, de género, de orientación e identidad sexual y funcional, entre otras.

3.4. Los corporativos están obligados a desempeñar sus funciones con



Astigarragako Udala

eraginkortasunez eta zerbitzu publikoari erabateko dedikazioa eskainiz bete behar dituzte euren funtzioak. Printzipio hau gauzatzeko, ardurak dituzten organoetan eta erakundeetan deitzen diren bilera guztietan hartuko dute parte, baldin eta aurkako aginduren bat adierazten ez bazaie edo bertan parte hartzeko justifikatutako arrazoiren bat ez badago.

Udal zinegotzi liberatuek besteek baino obligazio etiko handiagoa dute udal lanetara eta herrirako dedikazio gehiago egiteko. Horregatik, gardentasunaren eta zintotasunaren alde, liberatuta dauden zinegotziek fitxatzeko obligazioa izan behar dutela. Aurreko puntuarekin lotuta, zinegotziok ere eredugarri izan behar dugu eta, udal langileek bezalaxe, soldata bat duten heinean, fitxatu beharra dagoela uste dugu.

3.5. Astigarragako Udalak indarrean dituen udal arautegi guztiak betetzeko konpromisoa hartu beharko du zinegotzi bakoitzak, batik bat Parte-hartze, Informazio eta Gardentasun arautegia. Udal zinegotziak herriaren aurrean eredugarri izan behar gara eta onartezina litzateke Udalak eta zinegotziok herritarrei obligazioak jartzea eta gero, zinegotziok ez betetzea.

4. PROZEDURA JUDIZIALETAN NAHASITA EGONEZ GERO JARRAITU BEHARREKO JOKABIDEA

4.1. Edozein ardura-kargu betetzen hasi aurretik, Astigarragako Udaleko udalkide

austeridad, honradez, ejemplaridad, eficacia y plena dedicación al servicio público. En cumplimiento de este principio asistirán a cuantas reuniones sean convocados en los órganos y las instituciones en las que desempeñen sus funciones, salvo instrucción contraria expresa o causa justificada.

Los concejales liberados tienen una mayor obligación ética de dedicarse a la labor municipal y al municipio que el resto de concejales. Por ese motivo y en aras de la transparencia y honestidad, los concejales liberados deben estar obligados a fichar. Ligado con el punto anterior, los concejales debemos ser ejemplares y al igual que el resto de la plantilla municipal, en la medida en que tienen un sueldo, consideramos que deben fichar.

3.5. Todo concejal deberá comprometerse a cumplir todas las ordenanzas municipales en vigor en el Ayuntamiento de Astigarraga, en especial la Ordenanza de Participación, Información y Transparencia. Los concejales debemos ser ejemplares ante la ciudadanía y sería inadmisibile que Ayuntamiento y concejales impusieran obligaciones a la ciudadanía y luego los concejales no las cumplieran.

4. ACTUACIÓN EN CASO DE IMPLICACIÓN EN PROCEDIMIENTOS JUDICIALES

4.1. Todo corporativo del Ayuntamiento de Astigarraga, antes de acceder al



Astigarragako Udala

guztiek adierazpen bat sinatu beharko dute. Bertan honako delituak egin dituzten edo ez adieraziko dute: ustelkeriarekin, genero-indarkeriarekin, jazarpen- edo diskriminazio-delituekin, sexu-askatasunaren eta -identitatearen aurkako delituekin, terrorismo, tortura edo zuzentasun fisiko edo moralaren aurkako delituekin, hirigintzako eta ekologiari lotutako delituekin, langileen eskubideen aurkako delituekin inolako loturarik, ezta delitu larriak izan daitezkeen ekintzekin ere.

4.2. Prozedura penal baten ondorioz ahozko epaiketa zabaltzen zaion edozein udalkidek bere karguari uko egingo dio prozedura zabaltzeko autoa helarazten zaion unean bertan.

4.3. Aurreko puntuan adierazitako delituengatik ebazpen judizial batekin inputatua suertatzen den udalkideak, egozten zaizkion akusazio edo delitu zehatzen inguruko azalpenak emango ditu Bozera maileen Batzordearen aurrean.

4.4. Epai irmo bidez zigor-prozedura batean egozten zitzaizkion delituengatik udalkide bat errugabe dela adierazten bada, Udala errugabearen izen ona eta ohorea berrezartzeko behar diren neurriak hartzera konprometitzen da.

ejercicio de cualquier responsabilidad, deberá firmar una declaración en la que afirme si ha incurrido o no en delito alguno ligado a corrupción, violencia de género, delitos de acoso o discriminación, contra la libertad e identidad sexuales, terrorismo, torturas o contra la integridad física o moral, delitos urbanísticos y ecológicos, contra los derechos de los trabajadores, así como la comisión de hechos constitutivos de delitos graves.

4.2. Cualquier corporativo al que se le abra juicio oral por un procedimiento penal dimitirá de su cargo en el mismo momento en el que se le dé traslado del auto de apertura del mismo.

4.3. Todo corporativo, en el caso de que resulte imputado por una resolución judicial por los delitos referidos en el punto anterior, dará cuenta de las concretas acusaciones o delitos que se le imputan ante la Junta de Portavoces.

4.4. En caso de que un corporativo resultara absuelto por sentencia firme de los delitos que se le imputaban en un procedimiento penal, el Ayuntamiento se compromete a adoptar las medidas necesarias para restablecer el buen nombre y el honor de la persona absuelta.



Astigarragako Udala

5. FUNTZIOAK BETETZEAREKIN LOTUTAKO FUNTSEN ERABILERA ARDURATSUA

5.1. Udalkideek, beti, eraginkortasun- eta zorroztasun-printzipioen arabera jardungo dute, euren zereginak betetzean aurrekontu publikoaren gastuak mugatuz, eta beren esku jarritako baliabideak edo ondasunak modu okerrean erabiltzea ekidinez.

5.2. Udalbatzan finkatutako udalkideen soldata udal-langileenaren modu berean igoko da gehienez ere.

5.3. Udalkideek Udalaren aurrekontuaren kargura bidaiatu behar dutenean, ahal izanez gero, altxor publikoarentzako merkeena izango den tarifa erabiliko dute, eta salbuespen bakarrak onartuko dira, tarifa hori eskuragarri ez dagoenean, edo bileretara heltzea eta Udala ordezkatzeko bermatzeko beste garraio-modu bat baino ez dagoenean. Egin beharreko bidaiak behar bezala justifikatuko dira txosten baten bidez, eta bertan zehaztuko dira bidaiaren helburuak eta izandako emaitzak.

5.4. Udalkideen funtzioen ondoriozko protokolo-gastuak Udalarekin lotura zuzena dutenak baino ez dira izango. Udalkideek arduraz kudeatuko dituzte gastu horiek, eta ez dira interes pertsonalengatik edo alderdiaren

5. USO RESPONSABLE DE LOS FONDOS RELACIONADOS CON EL DESEMPEÑO DE FUNCIONES

5.1. Los corporativos actuarán siempre bajo los principios de eficiencia y austeridad, limitando los gastos del presupuesto público en el ejercicio de sus funciones y evitando cualquier uso impropio de los bienes o medios puestos a su disposición.

5.2. El salario de los corporativos, establecido por Pleno, se verá incrementado como máximo de la misma forma en que lo sean los de los trabajadores municipales.

5.3. Cuando los corporativos deban desplazarse a cargo del presupuesto institucional lo harán preferiblemente utilizando la tarifa que resulte más económica para el erario público y solo se admitirán excepciones cuando esta tarifa no esté disponible o cuando el empleo de otros medios sea el único disponible para garantizar la asistencia a reuniones y la representación del Ayuntamiento. Se justificarán debidamente, mediante informe, los viajes que sean necesarios realizar, incluyendo propósitos de viaje y resultados obtenidos.

5.4. Los gastos de protocolo que se deriven de las funciones de los corporativos serán únicamente los que tengan relación directa con el Ayuntamiento. Los corporativos gestionarán con responsabilidad dichos



Astigarragako Udala

interesengatik sortutakoak onartuko. Luxuzkotzat jo daitezkeenak ez dira onartuko.

Funtzio horietara bideratzen diren gastuak soilik udalarekin zerikusi zuzena dutenak izanen dira. Alkateak partida hori arduraz eta proportzionaltasunez kudeatuko du inolaz onargarri izanen ez direlarik helburu pertsonal edo partidu interesak bultzatuta egiten diren gastuak. Era berean onartezinak dira luxuzko kontsidera daitezkeen gastu guztiak.

5.5. Udalkideek ez dute esku hartuko eurengan interes ekonomikoren bat izan dezaketen gaitan, ezta edozein motatako abantaila –norberarentzat edo bigarren mailara arteko senitarteko batentzat– eduki dezaketen gaitan ere, baldin eta gai horiek euren postu publikoarekin lotuta badaude.

5.6. Halaber, azken 5 urteetan ordaindutako zerbitzu bat etengabe eskaini duten sozietateekin edo enpresekin lotutako gaitan ez dute parte hartuko, ezta ebazpenaren aurreko bost urteetan bertan interesak edo parte-hartzeak izan badituzte ere. Hala gertatuz gero, esku hartzeari uko egingo diote eta egora horren berri dagokion arduradun politiko edo administraziokoari eman beharko diote. Gai hori ezingo du mendeko batek ebatzi, inola ere.

5.7. Ez da lortutako informazio

gastos, no aceptándose aquellos que se originen por intereses personales o partidarios. No serán aceptables aquellos que puedan considerarse de lujo.

Los gastos destinados a esas funciones corresponderán a aquellas relacionadas directamente con el Ayuntamiento. El alcalde gestionará dicha partida con responsabilidad y proporcionalidad, siendo de todo punto inaceptable cualquier gasto ligado a intereses personales o partidistas. Asimismo, será inaceptable todo gasto susceptible de ser considerado de lujo.

5.5. Los corporativos no intervendrán en temas que puedan tener algún tipo de interés económico para ellos, ni tampoco en temas que pudieran reportarles cualquier otros tipo de ventaja, ya sea en beneficio propio o de algún familiar (hasta en segundo grado), siempre que esos temas estén relacionados con su ocupación pública.

5.6. Así mismo, no participarán en temas relacionados con sociedades o empresas si durante los últimos 5 años han prestado en ellas algún servicio remunerado de manera permanente, o si en los cinco años anteriores a la resolución han tenido intereses o participaciones en ellas. Si así fuera, renunciarán a intervenir y deberán informar de la situación al correspondiente responsable político o administrativo. No podrá ser resuelto, en ningún caso, por un subordinado.

5.7. No se llevará a cabo ninguna



Astigarragako Udala

pribilegiatuan oinarritutako eragiketarik gauzatuko.

5.8. Udalkidearen esku jarritako baliabide materialak eta giza baliabideak administrazio-kudeaketarako baino ez dira erabiliko, eta erabilera partikularrak eta udalaren jardunarekin loturik ez dauden erabilerak ekidingo dira, udal-jardueran eragin dezaketen bestelako jarduerak baztertzuz. Baliabide horiek Udalari itzuliko zaizkio karguaren iraunaldia amaitu ondoren.

5.9.- Parte-hartze, informazio eta gardentasun arategiak 29 artikuluan araututakoa jarraiki, hiru hiletik behin jarraian adierazitako gastuak Ogasun batzordean aurkeztu eta Web orrian publikatuko dira:

- 3 hilero Kargu Politikoen telefono gastuak.
- «Ordezkaritza gastuak» deritzen zenbatekoak.
- Kargu politikoei bidaia eta dietengatik kontzeptuka ordaintzen dena.

Gainera, hiru hilabetetik behin Udal Osoko Bilkurako gai ordeneko puntu izango da, beti ere, mota honetako gastuak izan badira.

5.10.- Zinegotziek, karguaren jardunean izandako gastuak kobratu ahal izanen dituzte. Horretarako beharrezkoa izango da kontu-hartzailearen aurrean frogagiri eta bestelakoak aurkeztea.

5.11.- Inongo kargu politikoak ezingo du

operación basada en la información privilegiada obtenida.

5.8. Los recursos materiales y humanos puestos a su disposición se utilizarán estrictamente para la tarea de gestión administrativa, evitando los usos particulares y los usos ajenos a la actuación municipal, sin llevar a cabo actividades que puedan entrar en conflicto con la actividad municipal y restituyéndolos al ayuntamiento una vez finalizada la duración del cargo.

5.9.- En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 29 de la Ordenanza de Participación, Información y Transparencia, cada tres meses los gastos señalados a continuación se presentarán ante la comisión de Hacienda y se publicarán en la página web:

- Gasto telefónico trimestral de cargos políticos.
- Cantidades de los denominados “gastos de representación”
- Cantidades abonadas a cargos políticos en concepto de desplazamientos y dietas.

Además, cada tres meses se incluirá como punto en el orden del día del Pleno Municipal, siempre que, existan dichos gastos.

5.10.- Los concejales podrán cobrar los gastos en que hayan incurrido en ejercicio de su cargo. Al efecto, deberán presentar facturas y justificantes ante el interventor municipal.

5.11.- Ningún cargo político podrá tener



Astigarragako Udala

Udalaren edo honen menpeko erakunde baten izenean banku txartelik eduki.

tarjeta bancaria en nombre del Ayuntamiento o de cualquier ente dependiente del mismo.

5.12.- Kontratazio prozeduren, Partehartze, Informazio eta Gardentasun ordenantzak dioenari betetzeko konpromisoa berrestea; eta gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun irizpide eta klausulak bermatzea.

5.12.- En los procedimientos de contratación, se ratifica la obligación de cumplir la Ordenanza de Participación, Información y Transparencia; y se garantizarán criterios y cláusulas sociales, medioambientales, éticas, laborales, lingüísticas y de igualdad.

6. OPARIEN INGURUKO POLITIKA

6. POLÍTICA DE OBSEQUIOS

6.1. Udalkideek ezingo dituzte onartu euren jarduera politikoarekin zuzenean edo zeharka lotutako pertsona fisiko edo juridiko baten erregaluak edo opariak – dirutan edo espeziean–, mesedeak edo zerbitzuak.

6.1. Ningún corporativo podrá aceptar regalos u obsequios, sean en efectivo o en especie, favores o servicios que procedan de una persona física o jurídica relacionada directa o indirectamente con su actividad política.

6.2. Erregalu edo opari bat jasoz gero, udalkideak uko egin beharko dio eta, 5 eguneko epean, eman dion pertsona fisikoari edo juridikoari itzuli beharko dio. Itzulketa ezin denean egin, Astigarragako Udalaren ondarean sartuko da edo, hori ezin bada egin, irabazi-asmorik gabeko erakunde bati emango zaio eta azken hau egoki edo egingarri ez bada ikusten, herritarren artean banatuko da zozketa bidez.

6.2. De recibir un regalo o presente el concejal en cuestión deberá rechazarlo y devolverlo a la persona física o jurídica que se lo haya entregado en un plazo de 5 días. Si no fuera posible devolverlo pasará a ser parte del patrimonio de Astigarraga y si eso tampoco fuera posible, será entregado a una entidad sin ánimo de lucro. Si esto último tampoco fuera viable o apropiado, se distribuirá entre la ciudadanía, por sorteo.

7. INDULTUEN INGURUKO JARDUKETA POLITIKOA

7. ACTUACIÓN POLÍTICA SOBRE INDULTOS

7.1. Ustelkeriarekin, terrorismoarekin, genero-indarkeriarekin, sexu-

7.1. Los corporativos se comprometen a no proponer ni apoyar el indulto de



Astigarragako Udala

gehiagikeriekin edo adingabeen tratu txarrarekin lotutako delituengatik, jazarpen- edo diskriminazio-delituengatik, sexu-askatasunaren eta -nortasunaren, torturen edo zuzentasun fisiko edo moralaren aurkako delituengatik, hirigintzari eta ekologiari lotutako delituengatik, langileen eskubideen aurkako delituengatik, eta delitu larritzat jo daitezkeen ekintzak burutzeagatik zigortutako kargu publikoen indultua ez proposatzeko ezta babesteko ere konpromisoa hartzen dute udalkideek.

7.2. Gainera, aipatutako delituengatik zigortuak suertatuko balira, udalkideek euren indultua ez eskatzeko konpromisoa hartzen dute.

8.- JARRAIPEN BATZORDEA.

Konpromiso hauek guztiak betetzeko jarraipena Parte-hartze batzordeak egingo du, eta udaleko kontu-hartzaileari jakinaraziko dio (iruzurra kontrolatzeko pertsona bakarreko organoa).

Jarraipena sei hilabetetik behin egingo da.

cargos públicos condenados por delitos ligados a corrupción, terrorismo, violencia de género, abuso sexual o maltrato a menores, delitos de acoso o discriminación, contra la libertad e identidad sexuales, torturas o contra la integridad física o moral, delitos urbanísticos y ecológicos, contra los derechos de los trabajadores, así como la comisión de hechos constitutivos de delitos graves.

7.2. Además, los corporativos se comprometen a no solicitar su propio indulto si fueran condenados por los mencionados delitos.

8. COMISIÓN DE SEGUIMIENTO

La comisión encargada del seguimiento del cumplimiento de estos compromisos será la comisión de Participación, que dará cuanta a la interventora municipal (órgano unipersonal de control del fraude).

El seguimiento se hará cada seis meses.

II. ERANSKINA

Interes-gatazkari eta iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioari buruzko testa (plana idatzi aurrekoa)

Galdera	Betetze-maila			
	4	3	2	1
1. Badago «iruzurraren aurkako neurriei buruzko planik», dagozkion funtsak ezarri beharreko arauetara jarraiki erabili direla iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokienez? Eta horrela, bere jardura-eremuan, erakunde betearazleak edo erakunde erabakitzaileak horrela egin duela bermatu eta adieraz dezake?				1
2. Gauzatu beharreko maila guztietan «iruzurraren aurkako neurriei buruzko planik» ote dagoen egiaztatu duzue?				1
Prebentzioa				
3. Badaukazue iruzurraren aurka borrokatzeko maila goreneko konpromisoa hartzen duen adierazpenik?	4			
4. Eginda duzue arrisku espezifikoak, horien eragina eta gertatzeko probabilitatea identifikatzen dituen autoebaluaziorik eta aldi-aldi berrikusi duzue?				1
5. Kode etikoa zabaldu duzue eta opariren politikari buruzko informazioa eman duzue?	4			
6. Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik eman duzue?				1
7. Interes-gatazkak ebazteko prozedurarik prestatu duzue?				1
8. Bertan esku hartutako guztiek interes-gatazkarik ez izateari buruzko adierazpenik bete duzue?				1
Detekzioa				
9. Iruzur-adierazlerik edo alerta-seinalerik (bandera gorriak) zehaztu duzue eta horiek detektatzeko moduan dauden langileei jakinarazi dizkiezue?				1
10. Datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnarik erabiltzen duzue?				1
11. Badago biderik hala nahi duten guztiek salaketak aurkezteko?		3		
12. Badago salaketak aztertzeke edo zuzenketak proposatzeko ardura duen Unitaterik?			2	
Zuzenketa				
13. Iruzurraren eragina ebaluatu eta sistemikotzat edo unean unekotzat jo duzue?				1
14. Iruzurrak eragindako proiektuak edo horien zatiak kendu dituzue horiek Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismoak (BEM) finantzatu dituenean edo finantzatu behar dituenean?				1
Jazarpena				
15. Erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo agintaritzaren arduradunari, dagokionaren arabera, gertatutakoak eta hartutako neurriak jakinarazi dizkiezue?				1
16. Hala dagokionean, herrialde bakoitzaren edo Europako Batasunaren Herri Agintarien edo fiskaltza eta auzitegi eskudunen aurrean zigortzeko moduko egitateak salatu dituzue?				1
Puntuen guztizko partziala.	8	3	2	12
Puntuak guztiak.	25			
Gehieneko puntuak.	64			
Puntu erlatiboak (puntu guztiak/gehieneko puntuak).	%39,06			

II. ERANSKINA

Interes-gatazkari eta iruzurraren zein ustelkeriaren prebentzioari buruzko testa (plana idatzi ondorengo)

Galdera	Betetze-maila			
	4	3	2	1
1. Badago «iruzurraren aurkako neurriei buruzko planik», dagozkion funtsak ezarri beharreko arauetara jarraiki erabili direla iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazken prebentzioari, detekzioari eta zuzenketari dagokienez? Eta horrela, bere jardura-eremuan, erakunde betearazleak edo erakunde erabakitzaileak horrela egin duela bermatu eta adieraz dezake?	4			
2. Gauzatu beharreko maila guztietan «iruzurraren aurkako neurriei buruzko planik» ote dagoen egiaztatu duzue?	4			
Prebentzioa				
3. Badaukazue iruzurraren aurka borrokatzeko maila goreneko konpromisoa hartzen duen adierazpenik?	4			
4. Eginda duzue arrisku espezifikoak, horien eragina eta gertatzeko probabilitatea identifikatzen dituen autoebaluazioak eta aldi-aldi berrikusi duzue?			2	
5. Kode etikoa zabaldu duzue eta opariren politikari buruzko informazioa eman duzue?	4			
6. Etika Publikoa sustatzen duen eta iruzurra detektatzea errazten duen prestakuntzarik eman duzue?				1
7. Interes-gatazkak ebazteko prozedurarik prestatu duzue?		3		
8. Bertan esku hartutako guztiek interes-gatazkarik ez izateari buruzko adierazpenik bete duzue?	4			
Detekzioa				
9. Iruzur-adierazlerik edo alerta-seinalerik (bandera gorriak) zehaztu duzue eta horiek detektatzeko moduan dauden langileei jakinarazi dizkiezue?	4			
10. Datuak aztertzeke edo arriskuak puntuatzeko tresnarik erabiltzen duzue?				1
11. Badago biderik hala nahi duten guztiek salaketak aurkezteko?	4			
12. Badago salaketak aztertzeke edo zuzenketak proposatzeko ardura duen Unitaterik?	4			
Zuzenketa				
13. Iruzurraren eragina ebaluatu eta sistemikotzat edo unean unekotzat jo duzue?	4			
14. Iruzurrak eragindako proiektuak edo horien zatiak kendu dituzue horiek Berreskuratze eta Erresilientziarako Mekanismoak (BEM) finantzatu dituenean edo finantzatu behar dituenean?		3		
Jazarpena				
15. Erakunde betearazleari, erakunde erabakitzaileari edo agintaritzaren arduradunari, dagokionaren arabera, gertatutakoak eta hartutako neurriak jakinarazi dizkiezue?	4			
16. Hala dagokionean, herrialde bakoitzaren edo Europako Batasunaren Herri Agintarien edo fiskaltza eta auzitegi eskudunen aurrean zigortzeko moduko egitateak salatu dituzue?	4			
Puntu guztizko partziala.	44	6	2	2
Puntu guztiak.	54			
Gehieneko puntuak.	64			
Puntu erlatiboak (puntu guztiak/gehieneko puntuak).	%84,38			



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Astigarragako Udalaren Iruzurra Prebenitzeko, Detektatzeko eta Zuzentzeko Planaren III. eranskina

Astigarragako Udalaren Osoko Bilkuraren adierazpena, iruzurraren aurkako konpromiso irmoari eta iruzurraren aurreko zero tolerantziari buruzkoa

Astigarragako Udala erakunde irekia, gardena, irisgarria eta osoa da, herritarrei eskaintzen dizkien zerbitzu eta politika publikoen etengabeko hobekuntzarekin konprometitua, mundu guztiarentzako etorkizuneko aukerak eta aurrerapen sozial, ekonomiko eta pertsonalerako aukerak sortzeko gai dena. Horretarako, konpromisoa hartzen du bere jardueran ondoko balio hauek betetzeko eta langile guztiei eta, oro har, herritarrei helarazteko:

- Zintzotasuna eta dedikazioa, jokabide kolektiboaren bereizgarri nagusi gisa.
- Erantzukizuna, zuzentasuna eta adimena, baliabide publikoak administratzerakoan.
- Udalerriko giza kapitalean, eta Udaleko profesionalen eta herritar guztien gaitasunetan oinarritutako gobernagarritasuna.
- Kohesioa eta elkarbizitza hirian, garapenerako eta aurrerapenerako funtsezko faktore gisa.

Horregatik, Udal honek adierazi nahi du arau juridikoak, etikoak eta moralak estandar altuenekin betetzeko konpromisoa hartzen duela, eta zuzentasunaren, objektibotasunaren eta zintzotasunaren printzipio zorrotzenak beteko dituela.

Horren harira, Astigarragako Udalak konpromisoa hartu du kalitate juridiko, etiko eta moral handia izateko, eta osotasunaren, inpartzialtasunaren eta zintzotasunaren printzipioak betetzeko. Bere asmoa da iruzurraren, ustelkeriaren, bidegabeko erabileraren, interes-gatazken eta dirua zuritzearen aurka dagoela erakustea bere eginkizunak gauzatzean.

Konpromiso hori ez da berria; izan ere, 2016ko maiatzaren 21eko osoko bilkuran, Astigarragako Udalak aho batez onartu zuen Astigarragako Udaleko zinegotzien kode etikoa, eta Iruzuraren aurkako neurrien Plan honetan sartu da (I. eranskina), eta haren barruan dago adierazpen hau ere.

Udal honek iruzurrezko jarduerak baztertzeko dituen kultura sustatzen du eta jarduera horien prebentzioa eta detekzioa bultzatzen ditu, kasu horiek kudeatzeko prozedura



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

eraginkorrak garatuz. Horrela, beste neurri batzuen artean, Udalak ekitaldi honetan bertan onartuko ditu bere Iruzuraren aurkako Plana eta plan horrek jasotzen dituen prozedurak eta neurriak, balizko interes-gatazkak edo egon daitezkeen iruzur-egoerak saihesteko eta, hala badagokio, zuzentzeko.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

IV. ERANSKINA

Astigarragako Udaleko zinegotzi eta/edo alkate karguan edo funtzio publikoan hasten den pertsona orok sinatu beharreko zinpeko adierazpenaren eredia.

Nik, (izen-deiturak), NAN, zinegotzi/alkate hautatua izan naizenez, edo lanpostuan gisa hasi naizenez (praktiketako funtzionarioa, karrerakoa, bitartekoa, lan-kontratuko langilea.....), **ADIERAZTEN DUT:**

Lehenengoa.- Astigarragako Udalbatzak onartutako Iruzurra Prebenitzeko, Detektatzeko eta Zuzentzeko Planaren kopia bat jaso dudala, eta honako hau jakinarazi didatela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren Finantza Erregelamendua) 61.3 artikulua «Interes-gatazka» honela dio: *«interes-gatazka egongo da eginkizunen gauzatze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiari, harreman afektiboari, kidesasun politiko edo nazionalari, interes ekonomikoari edo interes pertsonalari zuzenean zein zeharka lotutako arrazoen ondorioz».*

2. Sektore Publikoko Kontratuari buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» helburua da lehiaren distortsio oro saihestea eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatuak guztientzat tratua berdina dela bermatzea.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua, «Abstenitzea» izenekoak, xedatzen du prozeduran esku hartzetik abstenitu egingo direla «Administrazioetako agintariak eta langileak, hurrengo atalean aipaturiko egoeretakoren batean daudenean». Abstenitzeko arrazoi dira:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusezin nabarmena izatea.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

d)Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.

e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».

Bigarrena.- Iruzurra Prebenitzeko, Detektatzeko eta Zuzentzeko Plana onartzeko eta betetzeko konpromisoa hartzen dudala, bai eta plan horri eragin diezaiokeen edozein gorabehera kontrol-organoei jakinaraztekoa ere.

Hirugarrena.- Konpromisoa hartzen dudala gerta litekeen edozein interes-gatazka edo abstentzio-kausa organo eskudunei jakinarazteko.

Laugarrena.- Badakidala interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak eta ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.

Astigarragan,(e)an

Izen osoa:

NAN

Sinadura



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

V. ERANSKINA

Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenaren eredua (IGEA)

Espediente mota: (kontratua/dirulaguntza)	
Espediente-zenbakia:	
Kontzeptua:	

Goian aipatutako prozeduran inpartzialtasuna bermatzeko, behean sinatzen dutenek, espedientea prestatzeko, izapidetzeko eta esleitzeko prozesuan parte hartzen duten aldetik, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa. Honako informazio hau eman zaiela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren Finantza Erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazka» izenekoak, honela dio: «*interes-gatazka egongo da eginkizunen gauzatze inpartziala eta objektiboa arriskuan jartzen denean familiari, harreman afektiboari, kidesun politiko edo nazionalari, interes ekonomikoari edo interes pertsonalari zuzenean zein zeharka lotutako arrazoiaren ondorioz*».

2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua «Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa» helburua da lehiaren distortsio oro saihestea eta prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerik guztientzat tratua berdina dela bermatzea.

3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. Artikuluak, «Abstenitzea» izenekoak, xedatzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «Administrazioetako agintariak eta langileak, hurrengo atalean aipaturiko egoeretakoren batean daudenean». Abstenitzeko arrazoi dira:

a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo besteren batean, baldin eta azken horren ebazpenak lehenari eragin badiezaioke; sozietate edo entitate interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.

b) Ezkontza lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, entitate edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkari edo mandataritzarako.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

- c) Aurreko letran aipaturiko pertsonetakoren batekin adiskidetasun mina edo ikusezin nabarmena izatea.
- d)Dagokion prozeduran aditu edo lekuko gisa parte hartu izana.
- e) Gaian zuzeneko interesa duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri, azken bi urteetan, zerbitzu profesionalak eskaini izana, edozein motatakoak eta edozein baldintza eta tokitan».

Bigarrena. Ez daudela Europar Batasunaren Finantza Erregelamenduaren 61.3 artikuluan adierazitako interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, eta ez dutela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluko abstentzio-arrazoirik, prozedura honi eragin diezaiokeenik.

Hirugarrena. Konpromisoa hartzen dudala espedientea onartzeko eskumena duen organoari edo Iruzurraren aurkako Batzordeari jakinarazteko, luzamendurik gabe, egoera hori eragin duen edo eragin dezakeen interes-gatazka edo abstentzio-kausa.

Laugarrena. Badakidala interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-ondorioak eta ondorio administratiboak eta judizialak ekarriko dituela.

Astigarragan,(e)an

Izen osoa:
NAN
Sinadura